 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2023WDIZ0003
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	000957 - 2024/03/25
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	286 / 2024
	Titularra: / Titular:	ARABA EUSKARAZ
	Ordezkarria: / Representante:	JOSEBA FRANTX AGUINAGALDE ZUBICARAY
	Gaia: / Asunto:	ARABA EUSKARAZ: 2023ko dirulaguntza

286/2024 ALKATE DEKRETUA

2024ko martxoaren 25ean, ARABA EUSKARAZ elkarteak 000957 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarako Udalean.

Aipatutako eskaera bidez, ARABA EUSKARAZ taldeak 2024 urtean Araban euskara sustatzeko dirulaguntza eskatu dio Ibarako Udalari.

Ibarako udala bat dator Araban euskaraz ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarako udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Araban euskaraz.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Araba Euskaraz delako Araban euskararen eta euskal kulturaren hedapena bilatzen duen jai bakarra

Kontuan harturik, Euskara arloko diru-laguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.05 2024 diru-partida.

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Diruz laguntzea Araban Euskaraz egitasmoa, bera delako Araban euskara eta euskal kultura hedatzen duen jai bakarra. .

BIGARRENA.- Aipatu diru-laguntza 800 €koa izango da eta Araban Euskaraz egitasmoa antolatzen duen Araban Euskaraz Elkarteari (G01400324) ordainduko zaio ES63 2095 3188 00 9119125991 kontu korrontean

HIRUGARRENA.- Aipatu kopurua 2024ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.05 2024 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako diru-laguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu diru-laguntza helburu bererako beste diru-laguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administratziotik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.


BOSGARRENA.- Diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo da

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko, Araban Euskaraz ekimenaren antolatzailleek honakoa aurkeztu beharko dute 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen:

a. Jardueraren memoria, diru-laguntza jaso duen ekintzarena.

b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAZPIGARRENA.- Diru-laguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2023WDIZ0003
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	000957 - 2024/03/25
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	286 / 2024
	Titularra: / Titular:	ARABA EUSKARAZ
	Ordezkarria: / Representante:	JOSEBA FRANTX AGUINAGALDE ZUBICARAY
	Gaia: / Asunto:	ARABA EUSKARAZ: 2023ko dirulaguntza

ZORTZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

BEDERATZIGARRENA.- Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2024ko maiatzaren 13an

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



EKS | CSV: **ESKU9a671900-658a-4b91-9c4d-683e8aad1e3a**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024WDIZ0004-Dekretua/Decreto ()